OIARTZUNGO UDALA

OIARTZUNGO UDALERRIKO BABESGABEZIA ETA ARRISKU EGOERA ARINA EDO ERTAINEAN DAUDEN ADINGABEAK ETA BERAIEN FAMILIEI ZUZENDUTAKO ESKU HARTZE ZERBITZUA

-BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA-

1. KONTRATUAREN XEDEA

Baldintza agiri honen xedea da arrisku edo babesgabezia egoeran edo arrisku arina edo ertainan dauden Oiartzungo gazte eta adin txikikoei eta haren familiei zuzendutako terapia eta gizarte-hezkuntza arloko esku-hartze programak garatzen eta haurren ahultasuna eta ondoeza egoera goiz detektatzeko programa gauzatzen laguntzea.

2. ZIOEN AZALPENA

Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak, abenduaren 5ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Katalogoaren eta Prestazioen eta Zerbitzuen Zorroaren definizioa eta ezaugarriak aipatzen ditu. Bere 22. artikuluan, besteak beste, lehen mailako arretako gizarte zerbitzuei dagokionez, besteak beste, 1.3. atalean gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua aipatzen du.

Era berean, haur edo nerabe bat arrisku eta babesgabeko egoera orotan esku hartzeko betebeharra dute Herri Administrazioek, indarrean dagoen legeriraren arabera, 1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoa, eta 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoa.

Halaber, 12/2008 Legearen 42.3 eta 29.5 artikuluek jasotzen dute udalen eskumena dela gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua sortu, antolatu eta kudeatzea; eta 42.6 artikuluan aipatzen du Udalak bere gain hartu behar dituela arriskuan dauden adingabeak babesteko eginkizunak, hain zuzen, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko arloan indarrean dagoen araudiak esleitzen dizkienak.

Horri buruz, haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen 53. artikuluak dio haurraren babesgabetasun egoera oso larria izan ezean, udalei dagokiela arrisku egoeretan dauden haurren eta nerabeen kasuak ikertzea, baloratzea, bideratzea, eta halaber, kasu horietan esku-hartzea. Euskal Autonomia erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udaleko eta lurraldeko gizarte-zerbitzuetan arrisku-egoeren larritasuna balioesteko tresna da BALORA, eta honen bidez neurtzen da larritasuna (152/2017 Dekretua, maiatzaren 9koa)

Esku-hartzeari dagokionez, 3/2005 Legearen 55. artikuluan deskribatzen dira arrisku egoerei erantzuna emateko tresna teknikoak zeintzuk diren: familietan esku hartzeko oinarrizko zerbitzuak eta programak (hezkuntza arlokoak) eta zerbitzu eta programa espezializatuak (terapeutikoak).

Hortaz, 185/2015 Dekretuak, urriaren 6koak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen zorroari buruzkoak, jasotzen duenaren arabera, udal eskumenekoa da familietan arlo sozio-hezitzaileko eta psikosozialeko programak abian jartzea, haurren babesgabezia arrisku-egoerei (zaurgarritasuna, babesgabezia arrisku arina edo ertaina) erantzuna eman ahal izateko.

Arrisku edo babesgabezia egoeran edo arrisku arina edo ertaina dauden Oiartzungo gazte eta adin txikikoei eta haren familiei zuzendutako terapia eta gizarte-hezkuntza arloko esku-hartze programak garatzen eta haurren ahultasuna eta ondoeza egoera goiz detektatzeko programa gauzatzen laguntzea da kontratu honen xedea. Beti ere, kasuaren ardura gizarte langileak izango du, eta interesatuek beren borondatez onartuko dituzte laguntza hauek.

Kontratu honen kanpo geratuko dira gizarte langileak zehaztu ez dituen hezkuntza nahiz terapeutika arloko esku hartzeak edo udalaren eskuduntza betebeharrei erantzuten ez dietenak.

3. ESKU-HARTZE PROGRAMAREN PROZEDURA

Jarduera Protokoloa Eusko Jaurlaritzak egindako 152/2017 Dekretuan argitaratutako BALORA tresnan jasotako jarraibideetan oinarrituko da.

- Oinarrizko prozesua Udaleko Gizarte Zerbitzuak sailean babesgabetasun kasu bat atzeman edota jakinarazpen bat jaso eta gero hasiko da.

  Harrera eta ikerketa hasierako fasean, udaleko gizarte langileak jakinarazitako egoera hori Gizarte Zerbitzuei dagokien edo egokitu dakiekeen erabakiko du. Baita kasuaren larritasunaren hasierako ebaluazioa egitea ere, eta haren arabera aurrera eraman beharreko prozesua finkatzea. Ikerketaren oinarrizko helburuak babesgabezia egoera dagoela egiaztatzea, haren larritasuna, errepikatzeko aukerak eta adingabekoaren osasunak eta bere bizitzak duen arriskua baloratzea, eta premiazko babes neurriak hartzeko beharra baloratzea dira.

- Udaleko Gizarte langilea egoera ikertu eta baloratzeko familiarekin harremanetan jarriko da, eta Gizarte Zerbitzuen inguruko informazioa emango du, zerbitzuaren eskumenei eta ardurei buruzkoa eta erreferente modura aurkeztuko da.

  - EBALUAZIOA: Gizarte langileari dagokio tratu txarra agertzeko edo mantentzeko eta beste arriskua eragin duten arrazoiak zeintzuk diren identifikatzea. Baita familiaren gabeziak eta gaitasunak zehaztea ere.
  - BALORAZIOA: Gizarte langileari dagokio gurasoen kontzientzia maila eta aldaketarako motibazioa aztertzea. Baita egoera aldatzeko aukerak aztertzea. Gurasoak birgaitzeko pronostikatzea eta hartarako denbora epeak aurreikustea.

- Familiarekin batera, udal gizarte langileak sare lana egingo du egoeraren balorazioa egin ahal izateko, eta Balora tresna erabiliko du (152/2017 Dekretua, maiatzaren 9koa).

- Balorazioaren bidez, egoeraren larritasun maila neurtu eta egiaztatuko da eta mailaren baitan, zehaztuko da eskumen eta ardura: Udal Gizarte Zerbitzuetara bideratuz edo Lurralde mailako Gizarte Zerbitzuetara. Hain zuzen ere, arrisku arina eta ertainaren kasuetan Udal Gizarte Zerbitzuen ardurapean geratuko da, eta larria edota babesgabetasun kasuetan Lurralde Mailako Zerbitzuen ardupean geratuko da.

- Esku hartzea eta programaren aukeraketa.

- Oinarrizko gizarte langileak balorazioaren berri emango dio familiari eta kasuaren plana diseinatuko du. Planean diagnostikoa, landu beharreko helburuak, lan estrategiak eta erabili beharreko programak zehaztuko dira. Kasuaren arduraduna Udaleko gizarte langilea izango da.

- Planak Udal Gizarte Zerbitzuetako lan taldearen oniritzia jaso ondoren, eta proposatutako programaren baitan, gizarte langileak enpresa esleipendunari aurkeztu eta eskuhartze proposamena luzatuko dio.

- Oinarrizko Gizarte langileak, enpresa esleipendunaren lan talde profesionalarekin batera kasuaren plana adostuko du. Ondoren, talde profesioanalak bere balorazio eta proiektua egiteko, gehienez, zortzi ordu izango ditu, eta udal gizarte zerbitzuetara bidali beharko du.

- Gizarte langileak planaren berri eman eta enpresa espeipendunaren profesionalen aurkezpena egingo dio familiari.

- Gizarte langileak eta profesionalak plana martxan jarriko dute familiaren onarpena lortu ondoren. Familiak onarpena emango ez balu, jasotako adierazleak larriak ez badira, egoearen jarraipen informala egingo litzateke, familiaren onarpena lortu arte. Egoerak larrira joko balu, familiari informatu ondoren, Lurralde mailako zerbitzuetara bideratuko litzateke.

- Hiru hilean behin kasuaren plana berrikusi eta egoearen jarraipena egingo dute gizarte langile arduradunak eta laguntzen duten profesionalek. Egoeraren jarraipena egiteko esku-hartze taldeak indarrean dagoen araudiari jarraituz txostena egin beharko dute.

- Esku hartzearen amaiera.

  - Esku hartze fasea amaitzean, esku hartze lan taldeak, esku hartzearen bilakaearen azken txostena aurkeztuko du udal gizarte zerbitzuetan. Txostena indarrean dagoen araudiari jarraituz egin beharko dute.

  - Udaleko gizarte langile arduradunak eta esku hartze taldeak familiari azken txostenaren berri emango diote. Honako aukera ezberdinak egongo dira: eskuhartzea bukatutzat ematea, beharrezkoa denean egoeraren jarraipenaz informatzea, edota Lurralde mailako zerbitzuetara bideratzea (Gipuzkoako Foru Aldundia) eta honi buruzko azalpenak ematea. Azken kasu honetan, gizarte Langile arduradunak

eta esku hartze taldeak, elkarlanean, Gipuzkoako Foru Aldundira bideratzeko txostenak egingo dituzte.

4. ESKU HARTZE ZERBITZUAREN ONURADUNAK

Programa hauek Oiartzungo familiei zuzenduta daude, hain zuzen ere, Gizarte Zerbitzuak egindako baliospenaren arabera, babesgabezia-egoera arinean edo ertainean dauden edo gelditzeko arriskuan dauden adingabeak dituzten familiei.

5. PROGRAMEN HELBURUAK ETA EDUKIAK

BALORAZIOA ESKU HARTZEAN:

- Zalantza egoeretan, arrisku egoera arina, ertaina edo larria baloratzeko laguntza teknikoa eskaintzea.

- Kasuari buruzko ikerketa osatzea, babesik gabeko egoerarik badagoen baieztatzerik edo ukatzerik egon ez denean; aldi berean, esku hartzeko helburu zehatzak lantzea.

- Gurasoen gaitasunak ebaluatzea.

- Ebaluazioa zalantzazko pronostikoaz bukatzen denean, esku-hartzea laburra izatea, pronostikoa argitzen saiatzeko.

GURASO EDO LEGEZKO ARDURADUNENGAN ARAZOAREN AURREAN KONTZIENTZIA SORTZEA ETA ALDATZEKO MOTIBAZIOA

- Guraso eta legezko arduradunengan dituzten arazoen kontzientzia sorraraztea eta aldaketa prozesu batean sartzeko prestasun nahikoa bultzatzea. Aldaketa lortzeko esku-hartzeari ekiteko baharrezkoak diren baldintzak zehaztea.

FAMILIA ZAINTZEKO PROGRAMA: GURASOEN GAIKUNTZA

- Gurasoak edo legezko arduradunak gaitzea, guraso eginkizuna behar bezela bete dezaten.

- Babesgabetasunaren arrisku handiko egoera bukatzea; familia batasuna mantentzea, haurra familian behar bezala zainduta dagoela bermatzea, babesik gabeko egoera etorkizunean berriro gertatzeko dagoen arriskua ezabatzea edo murriztea.

ADINGABEEI BERARIAZKO LAGUNTZA EMATEA

- Familian dauden adingebeei banakako eta berariazko laguntza ematea.

HAURRARI ETA BERE FAMILIARI LAGUNTZEA ETA JARRAIPENA EGITEA

- Familia zaintzeko programa baten ondoren lortutako aldaketen egonkortasuna ebaluatzea.

- Lortutako aldaketak mantentzea, indartzea eta laguntzea, trinkoa ez den eskuhartzearen bitartez.

- Haurrak zaintzeko orduan eragin negatiboa daukaten arazaoak prebenitzea edo garaiz atzematea.

Programa hauen azken helburua da, adin txikikoei eta helduei arreta integrala ematea, pertsona gisa erabat garatzeko modua izan dezaten, inguruarekin ongi integratuak egon daitezen eta, bereziki, integrazio sozialerako eta babesarako duten eskubidea bermatua izan dezaten.

6. ESLEIPENDUNAREN LAN TALDEAREN OSAKETA

Lan taldeak, gutxienez, psikologo eta gizarte hezitzaile batez osaturik egon beharko du, edota soilik heziketa lanak bideratu behar direnean, gizarte hezitzaile batez.

- Psikologoa:
  - Psikologiako lizentziatura edo gradua, eta Psikologoen Elkargo Ofizialeko kide izatea.
  - Arrisku egoeran dauden adingabeko eta beraien familiekin, esku hartze psikoterapeutikoan, gutxienez hiru urteko esperientzia. Horretarako, herri administrazio prometan esparru horretan lan egin dutela egiaztatu beharko dute.
  - Zerbitzua euskaraz emateko ahalmena frogatu beharko du (Europako Erreferantzia Markoaren C1 gaitasun maila).

- Gizarte hezitzailea:

  - Gizarte-hezkuntzako, gizarte-laneko edo antzeko beste titulazio bateko diplomatura edo gradua.
  - Arrisku egoeran dauden adingabeko eta beraien familiekin, heziketa lanetan gutxienez urte beteko esperientzia izan behar du.
  - Zerbitzua euskaraz emateko ahalmena frogatu beharko du (Europako Erreferantzia Markoaren C1 gaitasun maila).

Adingabeen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa (Haurren Babesari buruzko uztailaren 28ko 26/2015 Legeak eta Boluntariotzari buruzko urriaren 14ko 45/2015 Legeak aldatua) betez, kontratuari atxikita dauden eta adingabeekin harremanetan dauden langile guztien sexu-delituei buruzko zigor-aurrekarien ziurtagiri espezifikoak aurkeztuko dira.

7. FUNTZIONAK ETA BETEBEHARRAK

7.1. TALDE ESLEIPENDUNAREN FUNTZIOAK ETA BETEBEHARRAK

- Esku hartzeko proposamena lantzea eta kasuaren planean parte hartzea, Udaleko Gizarte Langile arduradunarekin batera.
- Onartutako baldintza teknikoak eta ekonomikoak nahiz epeak betez programa betetzea.
- Baldintza agiri honetan definitutako jarduketa-protokoloa errespetatzea eta betetzea.
- Esku hartuko duen taldeari familia aurkeztu ondoren, saioei ekitea, gehienez ere, hamabost eguneko epean.
- Esku-hartze prozesuan aldaketa esanguratsuren bat izanez gero (profesionalen bajak, familia ingurunearen aldaketak, familia saioetara ez joatea, bizikidetza unitatean dauden aldaketak…), berehala eman beharko zaio horren berri kasuaren arduradunari.
- Esku hartzen ari diren profesionalak modu egongor eta egokian jardun

dezaten arduratzea. Profesionalen bat aldi baterako ezintasun egoeran badago, prestakuntza profesional baliokidea duen beste profesional batek ordezkatuko du.

- Kasuaren planaren ebaluazioarako zehazten diren bileretan parte hartzea eta aurretiaz eman beharreko txostenak ematea.
- Eskatutako kasuetan baloraziorako laguntza teknikoa ematea.
- Egindako esku hartzearen inguruan eskatzen zaizkion txostenak egitea eta aurkeztea.
- Gizarte-zerbitzuei, adingabeen babesari, eta datu babesari buruz indarrean dagoen araudia ezagutzea eta betetzea.
- Familiekin komunikazio eraginkorra bermatu beharko dute, azken horren ama-hizkuntza edozein izanda ere. Komunikaziorako bitartekoak eslepeindunaren kontura izango dira.
- Egindako esku hartzearen inguruan, eskatzen zaizkien txostenak egitea, indarrean dagoen araudiari jarraiki.
- Arrisku eta babesgabetasun egoeren larritasuna baloratzeko tresnak ezagutzea eta erabiltzen jakitea.
- Egindako esku-hartzeak justifikatzen dituen urteko memoria egitea.
- Familia bakoitzari buruzko txosten bat egitea urtero, non alderdi hauek zehaztuko diren: familiarekin landutako helburuak, familiaren egoeraren bilakaeraren adierazleak eta jarraitzeko proposamena dagozkion helburuekin edo esku-hartzearen amaiera lortutako helburuekin.
- Urteko txosten bat egitea, datu orokor hauek jasotzen dituena:
    - Sexuaren arabera bereizitako datuak.
    - Artatutako familien tipologia.
    - Zenbat familia artatu diren, zenbat alta berri egon diren adierazita.
    - Familia-profila eta landutako zailtasuna.
    - Alderdi psikosozialean eta sozioedukatiboan lan egin duten profesionalen kopurua.
    - Urteko guztizko fakturazioa, banakatuta: balorazio-orduak, banakako eta familiako esku-hartzearen orduak eta koordinazio-orduak.
    - Familiek egindako bilakaera: alta terapeutikoen kopurua, bajak, etab.
    - Identifikatutako zailtasunak eta hobetzeko proposamen zehatzak

7.2. OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN EGINKIZUNAK

Kasuaren gizarte langile arduradunak eginkizun hauek izango ditu:

- Udalerriko gainerako profesionalekin sareko lana eta lankidetza sustatzea.
- Babesgabezia edo zaurgarritasun egoeran dauden adingabeak dituzten familiak detektatzea eta horiei buruzko jakinarazpenak jasotzea.
- Hasierako ikerketa egitea, kasua baloratzea eta kasuaren plana zehaztea.
- Familia motibatzea, esku hartze prozesua onartu eta lagundu dezan.

- Esku-hartze taldearekin koordinatzea eta elkarlanean aritzea.
- Esku hartze prozesu osoaren jarraipena egitea.
- Egitasmoaren garapena berrikustea eta ebaluatzea eta esku hartzearen taldearekin koordinatzea, beharrezkoak diren aldaketak egiteko.
- Jarraipen bileretan parte hartzea.
- Familia bakoitzarekin, esku hartzea noiz hasi eta noiz bukatuko den erabakitzea, esku-hartze taldearen txostena kontuan hartuz.
- Egoeraren larritasuna areagotzen baldin bada, kasua bigarren mailako arreta-baliabideetara bideratzea.

8. ZERBITZUA EMATEKO LEKUA

Udalak bulego bat jarriko du enpresa esleipendunaren talde profesionalaren eskura, kontratuaren xede den psikoterapia jarduera garatzeko. Bulego hori ez da enpresak bakarrik erabiltzeko izango. Honi dagokionez, udalaren kontu izango dira argi-horniduraren eta ur-horniduraren gastuak, baina ez telefono-hornidurarenak. Enpresa esleipendunak Udalak bere esku jarritako lokala eta baliabideak behar bezala kudeatu eta erabili beharko ditu.

Esku-hartze sozio-hezitzailerako saioak esku-hartzen ari den familiaren etxebizitzan, edo hala badagokio, kalean edo une bakoitzean egokiena den lekuan, esku-hartzearen helburuei jarraiki.

9. ARTATZEKO ETA KOORDINATZEKO GEHIENEZK0 URTEKO ORDUAK

- Saio terapeutikoak: familia bakoitzarekin ordubeteko 24 saio; salbuespenez, gehienez, 30 saio izatera heldu daiteke, betiere aldez aurretik justifikatuta eta gizarte langile arduradunaren oniritziarekin.
- Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea: 88 ordu familia bakoitzeko.
- Gizarte- eta hezkuntza-arloko balorazio eta koordinazio orduak: 42,4 ordu.
- Psikologo edo terapeutarekin balorazio, koordinazio eta txostenak egiteko orduak: urtean 256 ordu guztira.
- Familia bakoitzarekin gehienez ere 24 hilabeteko esku-hartzea egin ahal izango da. Salbuespen gisa, luza daiteke, justifikazio-txostenarekin eta gizarte-langile arduradunaren oniritziarekin.
- Laguntza eta orientazio teknikoa ematea: 24 ordu urtean.

Oiartzun, 2021eko otsailak 3

Gizarte zerbitzuetako arduraduna